



GOBERNU BATZARRA

2024.12.17

Alkatea:
Angel Martinez de Rituerto Arregi

Bertaratutako zinegotziak:
Kristina Pelaez Errazkin
Ander Figuerido Zubiria
Aitor Agirresarobe Murgi

Tolosako udaletxean, bi mila eta hogeita lauko abenduaren hamazazpian, 09:00etan, lehenengo deialdian, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboan aipatutako zinegotziak agertu dira, gai-zerrenda hau aztertzeko:

Ez dira bertaratu:
Estitxu Kortejarena Ugarte
Goiuri Ezeiza Arandia

Idazkaria:
Begoña Garmendia Vazquez

Kontu-hartzaile akzidentala:
Paulino Alonso Eraso

1. Akta hau onartzea: 2024ko abenduaren 3koa.
2. Onartzea Tolosako udaleko 2025 urteko barne funtzionamendurako zerbitzu-instrukzioa eta egutegiak.
3. Onartzea Tolosako Udala eta Ikaztegietako Udalaren arteko lankidetzeta-hitzarmena.
4. Onartzea Tolosako Udalaren eta IVAPen arteko hizkuntza-prestakuntza eta normalizazioaren arloko hitzarmena.
5. Dekretu honen berri ematea:
2024/2752 Dekretua: 2024/54 faktura zerrendak

1. AKTA HAU ONARTZEA: 2024KO ABENDUAREN 3KOA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, izenburuan aipatutako akta aztertu dute.

Aho batez onartu dute.



2. ONARTZEA TOLOSAKO UDALEKO 2025 URTEKO BARNE FUNTZIONAMENDURAKO ZERBITZU-INSTRUKZIOA ETA EGUTEGIAK.

I.- AURREKARIAK

2020 urtean Tokiko Gobernu Batzarrak lan egutegiari buruzko irizpide orokorrak onartzea eta hainbat gaietarako buruzko prozedurak arautzea erabaki zuen, testu bateratu eta homogeen bat edukitzeko helburuarekin.

Ibilbide honetan, zerbitzuaren antolaketa desberdinak aztertu eta ebaluaketa egin ondoren, 2025 urterako egutegiaren zerbitzu instrukzioan aldaketa batzuk proposatzen dira. Aldaketa horiek euskaltegiko egutegietan eta Usabal langileen egutegietan daude.

Bestaldetik ere hainbat puntu erabakitzeko jarraitzen dute, tartean, egutegiaren lan saio malguari dagozkion atalak eta orduen konpentsazioarekin zerikusia dutenak, momentu honetan emandako epaiaren ondorioz udaleko mahai parekidea bilerak egiten ari baita akordio batera iristeko helburuarekin.

Proposamenak aurten ere bost eranskin ditu:

- I. eranskina: Egutegi espezifikoei dagozkien irizpideak
- II. eranskina: Sail eta azpisailen gutxieneko zerbitzuen proposamena
- III. eranskina: Udal hitzarmenaren ez-ohiko orduen 39.artikuluari buruzko aplikazioa
- IV. eranskina: Ez-ohiko/aparteko orduak onartzeko memoriaren ereduak
- V. eranskina: Langileen presentzia kudeatzeko arautegia

II.- EGUTEGIARI BURUZKO ALDAKETAK

- A) Euskaltegiko egutegiak: irakasleen oporren inguruan honakoa adostu dute bi aldeek:

“Aitzol Udal Euskaltegiko irakasleek ekainaren 30ean hartuko dituzte udako oporrak, betiere ordu ez lektiboak beteta badituzte ordurako. Irakasleren bat orduetara iritsi ezean, uztaillaren lehen hamabostaldian beteko ditu falta zaizkion orduak eta, behar izanez gero, zuzendariari eta idazkari akademikoari lagunduko die.

Zuzendariak eta idazkari akademikoak, berriz, berrogeita bost (45) eguneko oporraldia izango dute, uztaillaren 15etik abuztuaren 31ra. Uztaillaren lehen hamabostaldian beren lanpostuei dagozkien zereginetan arituko dira lanak bukatu bitartean; lehenago bukatuz gero, egunak murrizteko aukera izango dute haiek ere.

Irakasleek udan formazio-ikastaroren bat egiten badute, bi egoera aurreikusten dira:

- Uztaillaren lehen hamabostaldian bada, ekainean gordeko dituzte horretarako orduak.
- Handik aurrera badira, alegia, oporraldiko 45 egunen barruan, irailean hartuko dituzte ordainak.”



- B) Usabalgo langileen egutegiak: kasu honetan, harreragileen kasuan eguberrietan batek eta Aste Santuko pazko astean besteak, lau jai egun errekuaragari finkatu dituzte eta beste kasuan, kirol monitorearen kasuan, Aste santuko pazko astea errekuaragari gisa proposatu du egutegian txertatzea.

III.- EGUTEGIARI BURUZKO XEDAPENAK

A) Enplegatu Publikoen oinarrizko Estatutua

Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, bere 37.1 artikulua m) atalean xedaturikoaren arabera, lan egutegiak, lanaldiak, ordutegiak, oporrak eta baimenak, besteen artean, pertsonalaren ordezkariekin negoziatu behar dira. Zentzu horretan, lan egutegiari buruzko irizpide hauek, ordezkari sindikalekin, 2024ko azaroaren 26an eta 2024ko abenduaren 10ean negoziatu ziren eta bi aldeek arteko adostasunez onartu ziren.

B) Udal hitzarmena

Aurreko puntuan esandakoaren ildotik, udal hitzarmenaren 17 artikulua, lan egutegiaz hitzegiten duenean, lan ordutegiaren banaketa langileen ordezkariekin negoziatu eta lotuko dela adierazten du, beti ere zerbitzuaren beharra bermatuta egon behar duelarik.

Tolosako udal langileen lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmenak honako hauei buruzko xedapen nagusiak biltzen dituzte: lanaldia, atsedetak eta jaiegunak, oporrak, aparteko zerbitzuak, lizentziak eta baimenak, ordutegiak eta egutegiak. Horien barnean, lan egutegia, benetako lana edota egutegiaren lanaldi banaketari buruzko oinarrizko arauak xedatzen ditu.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

Lehena.- Tolosako udaleko 2025 urteko barne funtzionamendurako zerbitzu instrukzioa onartzea, ebazpen honen eranskin gisa doana. Halaber, langileen presentzia kontrolatzeko irizpideak indarrean jarraituko dute.

Bigarrena.- Udaleko 2025 urterako egutegiak onartzea, ebazpen honen eranskin gisa doazenak.

Hirugarrena.- Erabaki hau langileen ordezkarietara eta udaleko langile guztietara jakinaraztea, zerbitzu instrukzioen eta egutegien irizpideen kopia bat langileen eskura jarriaz (udaleko sarean).



TOLOSAKO UDALEKO EGUTEGIAK ETA BARNE FUNTZIONAMENDURAKO ZERBITZU INSTRUKZIOA

Azken urte hauetan, Giza Baliabide sailak lan egutegiari buruzko irizpide orokorrak onartzea proposatu zuen, testu bateratu eta homogeen bat edukitzeko helburuarekin. Dokumentu hau, urteroko egutegiaren onarpenarekin batera eguneratu eta egokitu egiten da, une bakoitzean dauden beharrak eta eman nahi diren zerbitzuak kontuan hartuz.

Honela, 2025 urterako egutegiaren zerbitzu instrukzioan aldaketa batzuk proposatzen dira.

Egutegi proposamenak bost eranskin ditu, hau da:

- I. eranskina: Egutegi espezifikoei dagozkien irizpideak
- II. eranskina: Sail eta azpisailen gutxieneko zerbitzuen proposamena
- III. eranskina: Udal hitzarmenaren ez-ohiko orduen 39.artikuluari buruzko aplikazioa
- IV. eranskina: Ez-ohiko/aparteko orduak onartzeko memoriaren eredu
- V. eranskina: Langileen presentzia kudeatzeko arautegia

AURREKARIAK

Administrazio publikoek, ordenamendu juridikoak markatzen dituen printzipio eta ahalmenen barnean, dagozkien neurriak hartu ahal izango dituzte interes orokorra eta kalitatezko zerbitzu publiko bat emateko helburuarekin.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena, bere 4. artikuluan, Toki-erakundeei (eta gure kasuan udalari) bere burua antolatzeko ahalmena ematen dio, udalak duen autonomiaren barruan.

Enplegatu publikoen betebeharren artean, udal herritarrek eskatzen dituzten zerbitzuak eskaintzea da, beti ere udal eskuduntzen barruan eta udal gobernuak ezarritako udal politiken markoan oinarrituta. Horrela, enplegatu publikoen lan egutegiak eta ordutegiak momentu bakoitzean eman nahi den zerbitzura egokitu beharko dira, eta horiek aldatu ahal izango dira zerbitzu edo behar berriak sortzen direnean, beti ere langileen ordezkariekin negoziatu ostean.

Kontuan hartuta egutegia legeak ezartzen duen instrumentu bat dela lanaldiaren banaketa urtean edo astean zehar egiteko eta, bide batez, enplegatu publikoen lanaldia finkatzeko, hauxe da **PROPOSAMENA**:



EGUTEGIA ONARTZEKO INSTRUKZIOAK ETA APLIKAZIO IRIZPIDEAK

Egutegiak onartzeko garaian, honako arau orokor hauek aplikatuko dira:

1.- Aplikazioa eremua.

Egutegiaren arau orokorrak aplikagarri izango zaizkie Tolosako Udaleko langile guztiei

2.- Lan egutegiari buruzko arau orokorrak.

Udalaren lan egutegia egingo da Udaltzaren xedatzen dituen urteko 1.592 orduak kontuan hartuta, eta lanaldiaren banaketa egunean, astean edo hilabeteetan desberdina izango da zerbitzu bakoitzaren beharren arabera, jarraibide honetan azaltzen diren lan saio luzatutako lanpostuen kasuan ezik .

3.- Lanaldi orokorra: iraupena eta lan banaketa.

Zerbitzu bakoitzari aplikagarri zaion egutegiaren arabera, eguneko gutxieneko lanaldia 7 ordutan finkatzen da, egutegi edota ordutegi espezifiko edo bereziak dituzten lanpostuetan izan ezik, 5. artikuluan xedaturikoari kalterik egin gabe.

Udal bulegoetan, udal langileen gutxieneko lanaldiaren ordutegia 08:30etatik 14:00etara izango da. Arau honetan salbuespen dira honako hauek: txandaka lan egiten duten langileak; beranduago sartzeko edo lehenago ateratzeko aurrez eskatutako eta onartutako baimena eta lizentzia dutenak; edota ordutegi berezi bat duten zerbitzuak.

4.- Lanaldi motak: lanaldi luzatua eta ordutegi bereziak.

Udalak, bere eskuduntzen barruan, lanaldi luzatua behar duten zerbitzu eta lanpostuak finkatu ditu; hauetan lanaldia eta ordutegiak zerbitzuak ezarritako beharretara egokituko dira. Honela, sei lan saio mota finkatzen dira:

- Lanaldi jarraitua: goizez egiten dena.
- Lanaldi malgu luzatua: lanaldi luzatua barnebiltzen duena; urtean 1.685 ordu.
- Lanaldi malgua: zerbitzuen beharretara egokitzen dena, urtean 1592 ordu.
- Lanaldi zatikatua: goizez eta arratsaldez
- Lanaldi malgu berezia: gainontzeko deskribapenetan barnebiltzen ez diren egutegi eta ordutegiak
- Txandakako lanaldia: goizez, arratsaldez eta gauez, edota goizez eta arratsaldeko txandatan banatzen dena.

5.- Udarako lanaldi murriztua.

Uztaileko hilabeteetan, Udalak lanaldi murriztua aplikatuko du bulegoetako egutegietan, beti ere zerbitzua ez badago taldetan edo txandaka antolatuta eta zerbitzuaren beharrak ahalbidetzen duen heinean. Lanaldi murriztu hau, abuztuko hilabeteetan ere egin ahal izango da (uztailean ez bada egin), beti ere uztaileko egutegian dauden lanegunak kontuan hartuz, hau da, uztaileko lanaldi murriztuaren lanegun kopuru berdina egin ahal izango da abuztuan lanaldi



murriztu gisa.

6.- Oporrak, norbere gaietarako lizentzia egunak eta hirurtekoak.

6.1.- Oporrak: 24 lanegun izango dira eta urte guztian zehar egiteko aukera izango da abenduko aste errekupegarrien aurreko astean izan ezik (2025. urtean, oporrak egiteko azken eguna abenduaren 13a izango da), beti ere zerbitzu beharren baitan eta honako irizpideak kontuan hartuaz:

- Urte guztian zehar sail guztietan sail bakoitzeko arduradunek definitu beharko duten gutxieneko presentzia bermatu beharko da.

Oporrengatiko 24 lanegun hauek, langile bakoitzak uztaileko edo abuztuko hilabetean gutxienez 10 lanegun hartu beharko ditu, justifikaturiko salbuespenak izan ezik. Salbuespen hauek arrazoitu beharko dira eta Zerbitzuburu zein Zinegotzi Delegatuak onartuak izan beharko dute. Azkenik, GGBBetako arduradunek bermatuko dute Instrukzio honetan onartutako irizpideak betetzen direla, eta hala ezean, Antolakuntzako zinegotzi delegatuak ebazpena emango du, eskaera baimenduaz edo ukatuaz.

- Arautegi honetatik at geldituko dira UDATEko langileak, zeintzuk urtean zehar oporrak egiteko aukera izango duten, zerbitzua beti ere lau langileekin bermatua egon beharko duelarik (uztaileko eta abuztuko hilabetea salbu, non, orokorrean, bi langilek oporrak egin ahal izango dituzten eta abuztuko hirugarren astean hiru langilek hartu ahal izango duten).

- Hauetaz gain, aldi berean, ezingo dituzte oporrak batera hartu honako lanpostuetako langileek:

- 1.- Idazkariak eta idazkaritzako teknikari juridikoak
- 2.- Kontuhartzaileak eta kontuhartzaitzako teknikariak.
- 3.- Udaltzaingoaren Ofizialak eta ofizial ordeak
- 4.- Udaleko web orriaren kudeatzaileak. Zentzu honetan, web orriaren kudeatzaileak koordinatu beharko dira hutsunerik ez sortzeko.
- 5.- Orokorrean, Departamentuetako arduradunek eta haien ordezkoeak.
- 6.- Orokorrean, antzeko zereginak dituzten lanpostuetako langile guztiek (arkitektoek, informatikoeak, gizarte langileek, departamentuko administrariak)

- Abenduko aste errekupegarrien aurreko asterako (2025. urtean abenduaren 13a) ez badira oporrak egin, galdutzat emango dira. Soilik salbuespenezko kasuetan, langileak azaroaren 15a baino lehen idatzi bat aurkezteko aukera izango du zerbitzuburuaren eta zinegotzi delegatuaren oniritziarekin. Kasu horretan, Giza Baliabideetako Sailean aztertuko da eta Giza Baliabideetako zinegotzi delegatuak ebazpena emango du, eskaera baimenduaz edo ukatuaz. Beti ere, oso salbuespenezko kasuetan onartuko dira oporren atzerapenak (udaleko hautaketa prozesuetako ikasketak



burutzeko, postgraduako azterketak egiteko kasuetan edo zerbitzuaren beharrak eskatzen duenean). Opor egun horiek egin ahal izateko atzeraturiko epea, hurrengo martxoaren 31an amaituko da. Ezgaitasun iragankorreko kasuetan oporrak egiteko eskubidea mantenduko da, legeak xedaturiko eran.

Bestalde, urteko oporrei dagokienez, sail bakoitzak, bere zerbitzuburuaren bitartez, martxoaren 31a baino lehen aurkeztu beharko du oporren plangintza Giza Baliabideetako Sailean, eta zerbitzuaren beharren arabera antolatuko dira zerbitzuak, bermatuz beti, udal langileen presentzia lantokian edo sailean dokumentu honetan jasotako irizpideen arabera.

Zerbitzuburu bakoitzak langile bakoitzaren oporren plangintza onartu beharko du, ziurtatuz goian zehaztutako irizpideak bermatzen direla, eta betetzen ez direnean, horren arrazoia azalduz. Plangintza hau (edo bere egokitzapen arrazoitua), modu berean, sail bakoitzeko zinegotzi delegatuak onartu beharko du baita ere. Plangintza GGBBetara bidaliko da sinatuta bai Zerbitzuburu zein Zinegotzi Delegatuaren oneritziarekin. Azkenik, GGBBetako arduradunek bermatuko dute Instrukzio honetan onartutako irizpideak betetzen direla, eta hala ezean, Antolakuntzako zinegotzi delegatuak ebazpena emango du, eskaera baimenduaz edo ukatuaz.

Udal eraikinak urte guztian zehar irekita egon behar dira, kasu hauetan salbu:

- Eraikin guztietan, egutegiko jai egunetan
- Kultur Etxea: abuztuaren 5etik 23ra itxita egongo da.

6.2.- Udal langileek dagokion urteko egutegia ixten den egunera arte izango dute aukera norbere gaietarako lizentzia egunak eta hiru urtekoak hartzeko, udal hitzarmenak markatzen dituen baldintzen arabera, eta ezingo dira inolaz ere hurrengo urtean hartu.

6.3.- Aste Santua eta Eguberrietako asteak.

Aste Santuko eta Eguberrietako aste errekupegarriari dagokienez, sail bakoitzak, bere barne antolakuntzaren barruan, Giza Baliabideetako sailean aurkeztu beharko du proposamena, data horiek iritsi baino 15 egun lehenago. Zerbitzuak une oro bermatua egon beharko du aste horietan.

Ezingo dira bi aste desberdinetako egun errekupegarriak jarraian disfrutatu, hau da, ezingo dira bi aste jarraian hartu. Halaber, ezingo dira Eguberrietako zein Aste Santuko egun horiek hiru urteko edo norberaren zereginetarako egunekin zein oporrek elkartu, ez aurretik ezta ondoren ere. Bi kasu horietan, dagokion organo eskudunak aldaketak baimendu ahal izango ditu, salbuespenezko izaeraz eta zerbitzuaren beharren arabera.



6.4.- Orduen konpentsazioa:

Lanaldi faktorearekin zerikusia duen gaia izanik, honen ebazpena 000229/2023 zenbakidun auzi jardunbidean emandako sententzian xedaturikoa bete ondoren egingo da.

6.5.-Urteko orduen zenbaketa eta saldoa.

Urte amaieran langileek sobera dituzten orduak iraungi egingo dira eta egutegi berria martxan jarriko da. Ildo horretan, langileak soberan dituen orduak murrizten joango da, bestela, urte bukaeran, iraungitzat deklaratu dira eta urteko egutegi berriarekin batera, urteko saldoa hutsean hasiko da. Arau hau lan presentzia kudeatzen duen eranskinean jasoko da (V. eranskina).

7.- Prestakuntza eta orduen zenbaketa.

Tolosako Udaleko langileek formazio edo prestakuntza-saioretan parte hartzeko araudia ondoren adierazten den moduan aplikatuko da. Araudi honen helburua honako hau izango da: alde batetik, Tolosako Udalak egingo duen Udal Prestakuntza Planaren lanketan, garapenean eta jarraipenean sartzen diren alderdi guztiak arautzea, eta, bestetik, udal enplegatuen asistentzia arautzea ikastaro, jardunaldi, hitzaldi, eta antzekoetan, beren lanpostuetarako prestakuntza indibidualizatua dakarten kasuetan.

Horrela, udal langileei aplikagarri izango zaie 2019ko maiatzaren 9an onartutako araudia (2019/759 Alkatetza Ebazpena), prestakuntza-saioretara joateko eta horren kudeaketa eta orduen zenbaketa egiteko. Hona hemen araudi honen xehetasunak:

7.1. - Ikastaroak onartzeko prozedura.

a Urtea amaitu aurretik (abenduan), udal langileek, saileko arduradun eta zerbitziburuek Giza Baliabideetako Sailari jakinaraziko dizkiote sailek prestakuntza edo formazio aldetik dituzten beharrak. Behar horiek justifikatuko egin beharko dira lanpostu bakoitzaren arabera.

b Urtarrilaren hasieran, Giza Baliabideetako Sailak prestakuntza eskaintza posta elektronikoz jakinaraziko die zerbitziburuei eta udal langileei, sail bakoitzaren intereseko prestakuntza saioen arabera, proposamenak egin ditzaten.

c Otsailean, aurkezturiko eskaerak aztertu ondoren, sail bakoitzeko arduradunaren oniritziarekin, Giza Baliabideetako zinegotzi delegatuak urteko prestakuntza plana onartuko du, ikastaro bakoitzaren egokitasunaren arabera eta zerbitzuaren beharrak kontuan hartuta.

Giza Baliabideetako Sailak onarpena eman ondoren, formazioa egiteko eskaera-eredua bete beharko da, eta, ondoren, Sail horrek eskaera izapidetuko du dagokion



erakundearekin (IVAP, EVETU, HABE...) eta zinegotzi delegatuak ebazpen bidez onartuko du.

Orokorrean, udal langile bakoitzak gehienez ere bi ikastaro (edozein modalitatetan, presentziala edo on-line bidezkoa) egin ahal izango ditu urtean. Hemendik kanpo geratuko dira jardunaldiak edo arau berrien ondorioz sortzen diren jardunaldiak, esate baterako. Dena den, salbuespenez, zinegotzi delegatuak ikastaro gehiago baimendu ahal izango ditu zerbitzuaren beharrak hala eskatzen duenean.

Udalak ordainduko ditu atal honetan xedaturiko eran onarturiko ikastaroen matrikulazio gastuak.

7. 2.- Ikastaroak sorturiko indemnizazioen ordainketa.

Ikastarora joateagatiko gastuak otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan xedaturikoak izango dira eta bidaia gastuen orri eredia betez justifikatu beharko dira.

7.3.- Prestakuntzako orduen zenbaketa.

Prestakuntza ikastaroetako orduak lanordutzat hartuko ditu Udalak; horretarako, eskaerekin batera, formazioko programa, ordutegia eta, ahal den neurrian, edukia erantsi beharko da. Informazio hori, kasu gehienetan, Giza Baliabideetako Sailak edukiko du, 7.1 atalean araututakoaren arabera. Honek salbuespenezkoa izan beharko luke. *8. ataleko araudia aplikatu nahi bada, hemen xedatu behar da.*

Prestakuntzarako egiten diren joan-etorriak ere lan ordutzat hartuko dira, behar den denbora zenbatuko delarik.

Joan etorriak baloratzerako garaian, honako irizpideak hartuko dira kontutan:

- 1 Ikastaroa Tolosatik kanpo denean, Tolosatik ikastaro lekura dagoen bidaia ordainduko da eta bidaia denbora ere (ikastaro denboraz gain) lan ordutzat hartuko da.
- 2 Ikastaroa Tolosan denean, eta lan orduetan denean, ez da bidaia gasturik ordainduko, eta ikastaroaren denbora bakarrik hartuko da lan ordutzat.

Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egiten diren prestakuntza saio, jardunaldi eta antzekoen inguruan, interesatuak 15 egun aurretik jakinaraziko dizkio Giza Baliabideetako Sailari saio horien xehetasunak, eta zinegotzi delegatuaren ebazpen bidez jakinaraziko da formazio horien orduen zenbatekoa, beti ere prestakuntza izan aurretik.

EAEtik kanpo egiten den formazio saioen kasuetan ere bidaiaren joan-etorrian pasatako denbora lan ordutzat hartuko da, eta beti ere 15 orduko muga izango du guztira. Joan-etorrian pasatako denborak muga hori gainditzen duen kasuetan, zergatia behar bezala arrazoitu ondoren, kasua baloratuko da. Kasu guztietan,



zerbitzuburuaren edo/eta zinegotzi delegatuaren baimena beharko du.

Salbuespen kasuetan, udal langileak proposatzen duen formazioa bere lanpostuarekin zuzenean loturik ez badago, hura egiteko aukera izango du honako baldintza honekin: matrikularen kostua ordaindu egingo zaio eta lan orduak errekuperatu egin beharko ditu.

8.- Kongresu, ekitaldi, hitzaldi, jardunaldi, elkarretaratze, senidetze eta antzeko ekitaldien ordu zenbaketa.

Arestian aipatu bezala, araudi honen helburua da, alde batetik, Tolosako Udalak egingo duen Udal Prestakuntza Planaren lanketan, garapenean eta jarraipenean sartzan diren alderdi guztiak arautzea, eta bestetik, udal enplegatuen asistentzia arautzea ikastaro, jardunaldi, hitzaldi, eta antzekoetan, beren lanposturako prestakuntza indibidualizatua dakarten kasuetan.

Edozein kongresu, ekitaldi, hitzaldi, jardunaldi, elkarretaratze, senidetze edo antzeko ekitaldietara joateko baimena ematen denean, bidaiaren denbora (joan-etorriak) lan ordutzat hartuko da.

Arau berbera aplikatuko da EAetik kanpo egiten den edozein kongresu, hitzaldi, jardunaldi, elkarretaratze edo antzeko ekitaldietan ere: joan-etorrian pasatako denbora lan ordutzat hartuko da, eta beti ere 15 orduko muga izango du guztira. Joan-etorrian pasatako denborak muga hori gainditzen duen kasuetan, zergatia behar bezala arrazoitu ondoren, kasua baloratuko da.

Puntu honetako lan denboraren zenbaketa Lanaldi faktorearekin zerikusia duen gaia izanik, honen ebazpena 000229/2023 zenbakidun auzi jardunbidean emandako sententzian xedaturikoa bete ondoren egingo da.

Dena den, goiko puntuan adierazitako kasuan, 15 egun lehenago aurkeztu beharko da eskaera, idatziz, Giza Baliabideetako Sailean, zerbitzuko arduradunaren oniritziarekin.

9.- Lan saio bereziak:

Lanaldi faktorearekin zerikusia duen gaia izanik, honen ebazpena 000229/2023 zenbakidun auzi jardunbidean emandako sententzian xedaturikoa bete ondoren egingo da.

Lehen azken xedapena.- Arautegi honetan ezartzen diren irizpideak ezin badira aplikatu zerbitzu beharrak direla medio edo langileen eskaera/egoera berezi bat dela medio, Giza Baliabideetako Sailean aztertuko da eta zinegotzi delegatuaren ebazpen bidez erabakiko da.



Bigarren azken xedapena.- Musika Eskolak, Euskaltegiak, Brigadak, Udaltzaingoak, atezainek, Udal Txistulari Bandak eta txandakako zein taldekako lana egiten duten kolektiboek bere arautegi eta egutegi propioa izango dituzte. Hauetan zehaztu gabe dauden puntuetan langileen araudi orokorra aplikatuko zaie, beti ere zerbitzuaren beharrak posible egiten duten heinean.



I. ERANSKINA

EGUTEGI ESPEZIFIKOARI DAGOKION IRIZPIDEAK

Barne araudiaren 4. puntuak dioen moduan, "Udalak, bere eskuduntzen barruan, lanaldi luzatua behar duten zerbitzu eta lanpostuak finkatu ditu; hauetan lanaldia eta ordutegiak zerbitzuak ezarritako beharretara egokituko dira". Horrela, dagokion sailaren urteko lanaldiaren egutegia egokituko da eman behar dituen zerbitzuen arabera eta ordezkari sindikalekin negoziatu ondoren.

1.- Bulegoetako egutegi eta ordutegi orokorrak.

Irizpide nagusiak:

- Asteko lanaldia astelehenetik ostiralera finkatuko da.
- Lanera sartzeko malgutasuna egongo da, 07:00etatik 08:30era bitartean. Ordu horretatik aurrera lanera sartzeko, baimena izan beharko du langileak. Horretarako, eskara arrazoitua aurkeztu beharko du Giza Baliabideetako Sailean, zerbitzuko arduradunaren oniritziarekin, eta Giza Baliabideetako zinegotzi delegatuak erabakiko du.
- 2025 urtean, Inauterietan honako ordutegia egongo da bulegoetan:
 - o Ostegun gizona: lau ordu.
 - o Ostiral mehea: lau ordu.
 - o Astelenita, asteartita eta hauster eguna: jai

2.- UDATEko egutegia eta ordutegia.

- UDATEko jendaurreko ordutegia hau izango da: 07:15etik 14:15era astelehenean, asteartean, asteazkenean eta ostiralean, eta ostegunean, berriz, 07:15etik 19:00etara, uztailan eta abuztuan izan ezik, non arratsaldeko zerbitzurik ez den emango.

- 2024 urtean, Inauterietan honako ordutegia egongo da Udateko zerbitzuan:

- o Ostegun gizona: 07:15-11:15.
 - o Ostiral mehea: 08:00-12:00
 - o Astelenita, asteartita eta hauster eguna: jai
- Bestalde, 2025 urtean dauden zubietan ere gutxieneko zerbitzua 2 administrarietan finkatzen da, salbu ekainaren 23an non itxita egongo den.
- Gabonetako bi asteetako ostegunetan eta Aste Santuko pazko asteko osteguneko ordutegia honakoa da: 07:15 - 16:00 (lanaldi jarraian).
- Ostegunetan langileren bat falta bada (oporrak, norberaren zereginak, ...), 07:15-12:00 bitartean 2 administrari egongo dira.



3.- Merkataritza, Azoka eta Turismoko Azpisailaren egutegia eta ordutegia.

- Bulegoetako ordutegia goizez izango da, urteko azoka berezi eta gainontzeko bilera zein ekitaldiak kontuan hartuta, zerbitzua arratsaldez ere eman ahal izango da. Hala ere, departamentuaren zerbitzua ohiko lan jardunaren ordutegian emango da, horretarako langileen ordutegiak behar bezala antolatuz.

4.- Kultura, Gaztedi eta Festetako Sailaren egutegia eta ordutegia.

- Bulegoko ohiko ordutegia 16:30 arte izango da, eta arautegi orokorra aplikatuko zaio.
- Ordutegi malgua duten langileen kasuan: 5 orduko derrigorrezko presentzia izango dute, zerbitzuburuarekin eta zerbitzu beharren arabera adostua izango dena.

5.- Liburutegiko egutegia eta ordutegia.

- Lanaldi jarraitua edo zatikatua izango dute, liburutegiko arduradunak ezarritako ordutegiaren arabera. Liburutegiaren jendaurreko ordutegia hauxe izango da: 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Langileen egutegiak aldiz, hiru txandatan banatuko dira (goizez, arratsaldez edota lanaldi zatikatuan).

6.- Brigadaren egutegia eta ordutegia.

- Egutegia astelehenetik ostiralera izango da, 07:00etatik 14:00etara edo 07:30etatik 14:30etara, eta Udalak dituen ekintzen egutegiaren arabera. Jarduerak dauden asteburuetan ere lan egingo dute, urtero zehaztutako egutegiaren arabera, sail guztien ekintzak koordinatu ondoren.

7.- Kiroletako egutegia.

- Usabalgo kirol instalazioan dagoen ordutegiaren eta ekintzen arabera antolatuko da egutegia.

8.- Samaniegoko eta Gorosabelgo atezainen egutegia.

- Samaniego ikastetxeak emandako ikasturteko egutegi lektiboaren arabera egokituko da atezainen egutegia. Ordutegia 07:30etatik 15:15etara izango da bata, eta, bestea, 08:00etatik 12:30etara eta 15:15etatik 18:30etara.
- Musika Eskola edo Euskaltegiak ikasturteko egutegi lektiboa kontuan hartuta, Gorosabelgo atezainaren ordutegia 14:30etatik 22:00etara izango da.



9.- Udaltzaingoaren egutegia.

Zerbitzu hau hiru txandatan eta 24 orduko zerbitzua izanik, bere araudi espezifiko propioa izango du eta urtebeterako egutegi bat onartuko da.

10.- Euskaltegiko egutegia.

Aitzol Udal Euskaltegiak dituen matrikulazio ikasleen arabera eta udal hitzarmenak ezarritako egutegiaren araudia errespetatuaz, ikasturtero onartuko dira beren egutegiak, beti ere, zerbitzuaren beharren arabera.

11.- Musika Eskolako egutegia.

Musika Eskolak dituen matrikulazio ikasleen arabera eta udal hitzarmenak ezarritako egutegiaren araudia errespetatuaz, ikasturtero onartuko dira beren egutegiak, beti ere, zerbitzuaren beharren arabera.

12.- Udal Txistulari Bandako egutegia.

Udal Txistulari Bandak arautegi propioa eta ikasturtero onartuko den egutegi propioa izango dituzte, beti ere, zerbitzuaren beharren arabera.



II. ERANSKINA

SAIL ETA AZPISAILEN GUTXIENENKO ZERBITZUEN PROPOSAMENA

Ondoren, sail eta azpisail bakoitzean gutxieneko zerbitzu hauek egotea gomendatzen da, hain zuzen ere:

| SAIL/AZPISAILA | GUTXIENENKO ZERBITZUA |
|--|---|
| Udate | Orokorrean lau administrari. Uztailean, abuztuan, aste santuan, gabonetan eta zubietan bi administrari. |
| Idazkaritza | Goi mailako teknikari bat, kontratazioko teknikari bat, eta administrari bat |
| Kontuhartzailatza eta Diruzaintza | Orokorrean bi teknikari eta bi administrari. Abuztuan teknikari bat eta administrari bat |
| Informatika | Langile bat |
| Giza Baliabideak | Administrari bat eta teknikari bat |
| Kirolak | Langile bat |
| Euskara eta Hezkuntza | Langile bat |
| Turismo, Enplegu, Azokak | Teknikari bat eta administrari bat |
| Hirigintza, Obrak eta zerbitzuak, Ingurumena | Ingeniari/ingeniari teknikoa, arkitekto-teknikoa, arkitektoa eta administrari bana |
| Gizarte zerbitzuak | Bi gizarte langile eta administrari bat |
| Kultura, Jaiak eta Gazteria | Langile bat |
| Liburutegia | Langile bat propioa (beharren arabera beste bat) |
| Berdintasuna | Teknikari bat |
| Gobernantza eta partehartzea | Langile bat |
| Udaleko Lan taldea | Ofizial bat eta lau peoi |
| Udaltzaingoa | Berezko araudia, buruzagitzako langile bat |

Oharrak:

- 1 Gutxieneko zerbitzuak ezingo dira bete enplegu programen bidez kontratatu diren langileekin
- 2 Web orria elikatzen duten langileek ezingo dituzte oporrak batera hartu
- 3 Bestelako kasuetan, zerbitzuburuak justifikatu beharko du proposatzen diren aukerak, beti ere egutegiaren printzipio orokorrak mantenduaz.



III. ERANSKINA

UDAL HITZARMENAREN EZ-OHIKO ORDUEN 39. ARTIKULUARI BURUZKO APLIKAZIOA

Jardunaldi faktorearekin zerikusia dutean gaia izanik, honen ebazpena 000229/2023 zenbakidun auzi jardunbidean emandako sententzian xedaturikoa bete ondoren egingo da.



IV. ERANSKINA

EZ OHIKO/APARTEKO ORDUAK ONARTZEKO MEMORIA

1 ESKATZAILEAREN DATUAK:

IZEN-ABIZENAK:

SAILA:

2 EZ OHIKO/APARTEKO ORDUEN BEHARREN JUSTIFIKAZIOA:

Azaldu hemen zergatik diren lan horiek atzeratu ezinak:

(1) Zure buruak agindutako lanak dira? BAI _____ EZ _____

| Data | Benetako lan denbora orduak (2) | Bidaiarako orduak, hala badagokio, soilik formazioan (3) | Oharrak | Sobera egindako orduak (4) | Aplikatzeko koefizientea | Konpentsatze ko orduak |
|------|---------------------------------|--|---------|----------------------------|--------------------------|------------------------|
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |

| Eskatzailearen sinadura | Zerbitzuburuaren/zinegotzi delegatuaren oniritzia | GGBBetako arduraduna/zinegotzi delegatuaren oniritzia |
|-------------------------|---|---|
| Data: | Data: | Data: |

- 2.1 Dagokion zerbitzuburuak/zinegotzi delegatuak bete beharrekoa.
- 2.2 Zehaztu behar da zein ordutatik zein ordutara lan egin den.
- 2.3 Zehaztu behar da zein ordutatik zein ordutara bidaiatu den (soilik formaziorako aplikagarria).
- 2.4 Alde itzalduna Giza Baliabideetako Sailak beteko du.



V. ERANSKINA

LANGILEEN PRESENTZIA KUDEATZEKO JARRAIBIDEA

Tolosako Udaleko lan hitzarmenak udal langileen lan baldintzen oinarritzko araudia erregulatzen du; oro har, lanaldi, atsedernaldi, jaiegun eta opor, aparteko zerbitzu, lizentzia eta baimen, ordutegi eta egutegiei buruzko xedapenak aurreikusten ditu.

Dena den, xedapen horiek osatzeko eta argitzeko helburuarekin, beharrezkoa ikusi da langileek benetan betetzen duten ordutegiaren kudeaketa arautuko duen arautegi espezifikoa egitea, kasu bakoitzean eta sortzen diren gorabeheren arabera jarraitu beharreko pausoak argitzeko asmoz; hau da, lanorduen kudeaketa lantokietan dagoen zenbaketa sistemen bitartez egiten bada ere, hainbat alderdi zehaztu eta garatzeko beharra sumatu da, guztiak irizpide garbiak izateko helburuarekin.

Horregatik, Udalak, bere barne antolaketarako, beharrezkoa ikusi du gutxieneko arau batzuk izatea, eta arautegi honetan azalduko da langileek ordu kudeaketa sistema nola bete behar duten eta zenbaketa sistemak ze jardunbide jarraitu behar duen.

1 artikulua. Aplikazio eremua.

Arau hauek Tolosako Udaletxeko langile guztiei izango zaizkie aplikagarri. Arau orokor gisa, udal langile guztiak obligazioa dute bere lantokietan ezarritako terminaletan sartu-irteerak fitxatzeko. Lanorduen kudeaketarako sistema mekanizatua ez duten lantokietako langileek Udalak esandako moduan fitxatu beharko dute.

2 artikulua. Kudeaketa gauzatzea.

Langile guztiak izango dute beren identifikazio txartela eta horren bitartez gauzatuko da kudeaketarako ezarritako sistema mekanizatua.

Giza Baliabideetako Sailari dagokio identifikazio txartelak egitea, interesdunari ematea, hark itzultzen dionean jasotzea eta txartelari dagokion beste edozein gorabehera.

Identifikazio txartela pertsonala eta besterenezina da. Debekatuta dago beste langileen txartelarekin markaketak egitea. Langileak bere txartela Giza Baliabideetako Sailean entregatu beharko du, Tolosako Udalarekin bere lan harremana amaitzen duenean.

Langile orok, Udalak duen aplikazioaren bidez, esleituta izango ditu bere urteko lan egutegia eta hari dagozkion eguneko ordutegia, oporrak zein lizentzia egunak.

Langileak behartuta daude fitxatzera eta behar diren gorabeherak azaltzera beren ohiko lantokian sartzen diren edo handik irteten diren bakoitzean, arrazoia edozein dela ere, bai lanegunaren hasieran edo bukaeran, bai egunear zehar egiten dituen sartu-irteeretan.



(Bazkaltzeko egiten den etenari dagokionez, irteera eta sarrera berria egin beharko dira.)

Lanegunaren hasiera-bukaerarekin bat ez datozen sartu-irteerak dagokion kodearekin fitxatu beharko dira eta, gainera, behar bezala zuritu eta egiaztatu beharko dira. Kode hori gorabeheraren hasieran eta bukaeran tekleatu beharko da eta, ondoren, aplikazioaren bidez islatu, langileak eta bere zerbitzuburuak oniritzia emanaz.

Behar bezala kodifikatu ez den irteera oro «justifikatu gabeko absentzia» gisa hartuko da hasiera batean. Ondoren, Giza Baliabideetako Sailean dokumentazio egokia aurkezten bada (araudi honetako 6., 7. eta 8. artikulua) absentzia hori zuzendu egingo da.

Ez da konputatuko, ordutegi-malgutasuna dela eta, ezarritako sarrera ordua baino lehenago fitxatzeagatik egiten den denbora.

Ordu gehiago lan egiten bada (ordu gehiegia), ordu horiek ezingo dira metatu ondoren jaiegunetan konpentsatzeko helburuarekin.

Ohiko lanalditik kanpo egindako orduak, aparteko izaera dutenak, nagusiaren berehalako agindua beharko dute beti eta horien izaera Giza Baliabideetako Sailak aztertuko du eta, hala badagokio, oniritzia emango du.

Langileak ez badu fitxatu, edozein arrazoi dela medio, gorabeheren parte bat beteko du. Bertan, lanaldiaren data, hasiera-ordua eta amaiera-ordua zehaztuko ditu. Gainera, ez fitxatu izanaren arrazoia adierazi beharko du. Parte hori aparteko eta ohikoak ez diren baldintzetan bakarrik onartuko da.

Txartela galdu edo hondatzen bada, langileak Giza Baliabideetako Sailari jakinaraziko dio ahalik eta epe laburrenean, txartel berri baten eskaera izapidetzeko asmoz.

3 artikulua. Prozesua izapidetzea.

Langile bakoitzak kontsultatu ahal izango du ordu kudeaketako dagokion informazioa, alegia, fitxatzeko mugimenduen erregistro indibiduala (markaketak), Udalak duen aplikazio informatikoaren bidez.

Giza Baliabideetako Sailak aipatutako zuriaketak baliozkotu egingo ditu, baldin eta justifikatuta badaude eta zerbitzuburuaren oniritzia badute, eta, kasuan kasu, sisteman sartuko ditu, datu horiek behin betiko bihurtuz.

4 artikulua. Gorabeherak.

Gorabeherak honako hauek izango dira:

- Langile bakoitzak ezarrita duen ohiko lanaldiko sarrera-irteerei dagozkien fitxaketa guztiak ez egitea.
- Sarrera-irteerei dagozkien derrigorrezko fitxaketak ez egitea.



- Berandu sartzea, goizegi irtetea eta zuritu gabeko ordutegia.
- Lanera ez agertzea, edo egun batean nahiz gehiagotan egin beharreko fitxaketarik ez egitea.
- Oro har, era batera edo bestera gutxieneko lan ordutegia ez betetzea, egin beharreko fitxaketetan agertu nahiz ez agertu.

Dena den, gorabeherak zuritu beharko dira, dagokion frogagiria aurkeztuz eta zerbitzuburuaren eta Giza Baliabideetako Sailaren oniritziarekin.

5 artikulua. Laneko eginkizunetarako irteerak.

Langileak bere lan eginkizunetarako lantokitik irten behar izanez gero, zerbitzuburuaren oniritzia beharko du eta dagokion intzidentzia markatuko du fitxatzeko sistema mekanizatuan. Dena den, arau hau garatzeko, lanarengatik maiz atera behar duten langileen kasuan, sartu-irteerak ez fitxatzeko zerrenda egin eta ebatziko du.

6 artikulua. Lizentziez eta baimenez gozatzea.

Lizentziak eta baimenak eskatu eta hartzeko garaian, Udalaren barne araudiaren eta lan hitzarmenean ezarritakoaren arabera jokatu da, eta zerbitzuburuaren oniritzia beharko da.

Lizentziak eta baimenak (baita sindikatuetakoa gaiak direnean ere) Giza Baliabideetako Sailean eskatuko dira gutxienez bi eguneko aurrerapenarekin, zerbitzuaren antolaketa bat beharrezkoa den kasuetan, salbu eta hori ez egiteko arrazoi justifikatua dagoenean. Ahal denean, eskaerarekin batera lizentzia arrazoitzen duen gertaera zuritzen duten agiriak ere aurkeztuko dira aplikazio informatikoaren bidez. Eskaera horiek ez betetzeak lizentzia edo baimena ukatzea eragin dezake.

Zuritzeko agiriak lizentziaz edo baimenaz gozatu aurretik aurkeztea ezinezkoa izanez gero, (karneta, pasaporte, mediku-kontsulta, ikastaroak eta abar), agiri horiek Giza Baliabideetako Sailean aurkeztu beharko dira lizentziaz edo baimenaz gozatu eta gehienez ere bi eguneko epean, dagokion intzidentzia aplikazio informatikoan sartuz.

Lizentziek eta baimenek eskubidea ematen dute lizentziaren edo baimenaren xedea betetzeko beharrezkoa den denbora erabiltzeko, ez bestetarako. Lizentziaren xedea bete ondoren, lantokira itzuli beharko da.

Norbere zereginetako edo hirurtekoen egunen kasuan ez da zuritu beharko.

7 artikulua. Lanera ez agertzea.

Lanera ez agertzeko eskatutako baimena edota lizentzia denean, ebazteko behar adinako denbora emanaz eskatuko da.



Lizentzia edo baimena aurrez eskatu ez denean, ahal bezain laster, eta ahal dela egun berean, langileak bere zerbitzburuari jakinaraziko dio. Ondoren, lanera itzultzen den egunean, langileak lizentzia eskaera bete beharko du, hala badagokio, eta bertan adieraziko du zenbat egun hartu dituen eta horien arrazoiak, eta dagokion frogagiria erantsiko du.

Lanera ez agertzearen arrazoia gaixotasuna denean, lehenengo bi egunetan ez da sendagilearen frogagiririk aurkeztu beharko, baina egunean bertan ahalik eta azkarren jakinaraziko zaio Giza Baliabideetako Sailari eta norberaren sailari. Hirugarren egunetik aurrera, aldi baterako ezintasuna (baja) hartu beharko da eta jakinarazi. Aldi baterako ezintasuna, ahal den kasuetan, langilea gaixo egon den lehenengo egunetik hasita hartuko da. Bajaren agiria Giza Baliabideetako sailean aurkeztu beharrik ez dago, Gizarte Segurantzak bidaltzen baitu.

8 artikulua. Lanaldia ez betetzeagatik orduen deskontua, errekupeazioa eta orduen saldoa.

Puntualtasun ezagatik edo urteko lanordu gutxiegi egiteagatik lanaldia betetzen ez bada, deskontuak egin ahal izango dira, ondoren zehazten den moduan:

- Langileak puntualtasunik ez badu edo bere egutegiak ezarritako ordutegia betetzen ez badu, ordu horiek hurrengo hiru hilabetean errekupeatu beharko ditu; hala egin ezean, hurrengo hileko nominan dagokion kitapena egingo da.
- Aldiz, kudeaketa sistemak hileko lanorduen emaitza positiboa ematen badu, langileak ez du horregatik inolako ordainik jasoko eta ordu horiek hurrengo sei hilabetetan zehar murrizten joan beharko du, beti ere urteko egutegia amaitzen den egunaren mugarekin.

9 artikulua. Diziiplina neurriak.

Indarrean dagoen legeriak jasotzen duen bezala, hutsegite larria izango da lanorduen kudeaketa sistemai ihes egiteko asmoz edo bidezko arrazoirik gabe lanorduak ez direla bete ezkutatzeko asmoz egiten den eta egiten ez den edozein ekintza.

Hutsegite larriak dira, era berean, urtea amaitzean, egin gabeko ordu kopurua, pilatuta, 10 ordukoa edo hortik gorakoa izatea, eta lanaldiaren barruan lanpostuan ez egotea, bata zein bestea bidezko arrazoirik gabe eginak direnean.

Lan ordutegia bidezko arrazoirik gabe ez betetzea hutsegite arina da, larria ez denean.

Dena den, edozein neurri hartu aurretik, udal langileari 10 lanegunetako epea emango zaio alegazioak egin ahal izateko.



XEDAPEN GEHIGARRIA

Giza Baliabideetako Sailari ahalmena ematen zaio lanorduen kudeaketarako arautegi honi dagozkion irizpideak garatzeko eta bateratzeko. Giza Baliabideetako Sailak gainbegiratuko du behar bezala aplikatzen dela indarrean dagoen araudia lizentziak ematerakoan eta baimenez gozatzerakoan.

AMAIERAKO XEDAPENA

Araudi hau indarrean sartuko da, dagokion organo eskudunak onartu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.



URTEA: 2025

SAILA EDO DEPARTAMENTUA : USABAL
AZPISAILA EDO ATALA: Arantxa Sanchez

URTARRILA

| | | | | | | |
|----|----|----|----|----|----|----|
| A | A | A | O | O | L | I |
| | | ★ | 2 | 3 | 4 | 5 |
| ★ | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 |
| 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 |
| 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 |
| 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | |
| | | | | | | 21 |

OTSAILA

| | | | | | | |
|----|----|----|----|----|----|----|
| A | A | A | O | O | L | I |
| | | | | | 1 | 2 |
| 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 |
| 24 | 25 | 26 | ★ | ★ | | |
| | | | | | | 18 |

MARTXOA

| | | | | | | |
|----|----|----|----|----|----|----|
| A | A | A | O | O | L | I |
| | | | | | 1 | 2 |
| ★ | ★ | ★ | ★ | ★ | ★ | ★ |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 |
| 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 |
| 31 | | | | | | 18 |

APIRILA

| | | | | | | |
|----|----|----|----|----|----|----|
| A | A | A | O | O | L | I |
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 |
| 14 | 15 | 16 | ★ | ★ | ★ | ★ |
| ★ | ★ | ★ | ★ | ★ | ★ | ★ |
| 28 | 29 | 30 | | | | 19 |

MAIATZA

| | | | | | | |
|----|----|----|----|----|----|----|
| A | A | A | O | O | L | I |
| | | | ★ | 2 | 3 | 4 |
| 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 |
| 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 |
| 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 |
| 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | |
| | | | | | | 21 |

EKAINA

| | | | | | | |
|----|----|----|----|----|----|----|
| A | A | A | O | O | L | I |
| | | | | | | 1 |
| 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 |
| 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 |
| 23 | ★ | ★ | ★ | ★ | ★ | ★ |
| 30 | | | | | | 20 |

UZTAILA

| | | | | | | |
|----|----|----|----|----|----|----|
| A | A | A | O | O | L | I |
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| 21 | 22 | 23 | 24 | ★ | ★ | ★ |
| 28 | 29 | 30 | ★ | | | |
| | | | | | | 21 |

ABUZTUA

| | | | | | | |
|----|----|----|----|----|----|----|
| A | A | A | O | O | L | I |
| | | | | 1 | 2 | 3 |
| 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 11 | 12 | 13 | 14 | ★ | ★ | ★ |
| 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 |
| 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 |
| | | | | | | 20 |

IRAILA

| | | | | | | |
|----|----|----|----|----|----|----|
| A | A | A | O | O | L | I |
| | | | | | | |
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 |
| 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 |
| 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 |
| 29 | 30 | | | | | 22 |

URRIA

| | | | | | | |
|----|----|----|----|----|----|----|
| A | A | A | O | O | L | I |
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 |
| 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | | |
| | | | | | | 23 |

AZAROA

| | | | | | | |
|----|----|----|----|----|----|----|
| A | A | A | O | O | L | I |
| | | | | ★ | ★ | ★ |
| 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 |
| 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 |
| | | | | | | 20 |

ABENDUA

| | | | | | | |
|----|----|----|----|----|----|----|
| A | A | A | O | O | L | I |
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | ★ | ★ |
| ★ | ★ | ★ | ★ | ★ | ★ | ★ |
| 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 |
| 22 | 23 | 24 | ★ | ★ | ★ | ★ |
| 29 | 30 | 31 | | | | |
| | | | | | | 17 |

ORDUTEGIA:

| | | | | | |
|-------------------------|------------|---------------|------------------------|-----------|-------------------|
| tik - tara / tik - tara | Lan orduak | Ordain orduak | Eguneko orduak guztira | Astegunak | Noiztik noiz arte |
| / | lan tokian | Otarkekoa | | | |
| - / - | | | | | |
| - / - | | | | | |

OHARRAK:

2.– Lankidetza-hitzarmenen helburua izango da: sektore edo biztanleria jakin bati bideratutako sustapen-politikak koordinatzea; aldeetako baten eskumeneko obra edo zerbitzuak burutzea; lege honetan zehaztutako eskumenak garatzeko –propioak, transferituak, eskuordetuak edo bestelakoak– behar diren egoitza, lokalak edo eraikinak partekatzea; ondarezko ondasunak erabiltzeko lagatzea eta lagapenak onartzea; prestazio-jarduerak garatzea; hala dagokionean, obra, ondasun eta zerbitzuen administrazio-kontratazioa arrazionalizatu eta zentralizatzeko mekanismoak jartzea; administrazio-zerbitzuak multzokatzea, eta, finean, aurrekoen antzeko beste edozein helburu lortzeko behar diren neurriak hartzea.

3.– Beharrezkoa denean, hitzarmenak aurreikusi ahal izango du, kasuan kasuko zerbitzuak eta bitarteko material eta ekonomikoak eskualdatzeaz gain, zerbitzu horietara atxikitako langileak ere aldatzea; baina horrek ez dakar berekin inor berez ez dagokion administrazio publiko bateko funtzio publikoan sartzea”.

BOSGARRENA.- Hitzarmenak bete beharreko baldintzak 40/2015 Legearen 48. artikuluan aurreikusten dira. Kasu honetan, ondorengoak dira aipagarrienak:

“3. **Hitzarmenak sinatuz kudeaketa publikoaren efizientzia hobetu** beharko da, bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera erraztu, erabilgarritasun publikoko jarduerak egin daitezzen lagundu, eta aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako legeria bete.

8. Alderdiek adostasuna emanaz burutzen dira hitzarmenak”.

Lege bereko 49. artikuluan izendatzen da hitzarmenek izan beharreko gutxieneko edukia:



| LEGEZKOTASUNA BETETZEA | BAI/EZ | OHARRA |
|---|--------|--------|
| a) Hitzarmena sinatzen duten subjektuak, eta alderdietako bakoitzaren gaitasun juridikoa. | BAI | |
| b) Zer eskumenetan oinarritzen den administrazio publikoaren jarduerak. | BAI | |
| c) Hitzarmenaren xedea eta subjektu bakoitzak hura betetzeko egin beharreko jarduerak. | BAI | |
| d) Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromiso ekonomikoak, halakorik badago. | BAI | |
| e) Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoen ez betetzeari aplikatu beharreko ondorioak. | BAI | |
| f) Jarraipen, zaintza eta kontrolerako mekanismoak. | BAI | |
| g) Hitzarmena aldatzeko araubidea. | BAI | |
| h) Hitzarmenaren indarraldia. | BAI | |

Hitzarmenaren funtsezko zati hauek txertatu beharko dira Hitzarmena baliozkoa izan dadin.

ZAZPIGARRENA. - 19/2013 Legearen 8.1 artikularen b) atalean jasotzen denari jarriki, hitzarmena argitaratu egin beharko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Gardentasun atarian eta Udaletxeko Iragarki Taulan:

“1. Titulu honen aplikazio-eremuan aipatzen diren subjektuek ekonomian edo aurrekontuan eragina duten administrazio-kudeaketako egintza hauei buruzko informazioa **argitaratu beharko dute, gutxienez:**

b) **Sinatutako hitzarmenen zerrenda**, honako hauek adierazita: sinatzaileak, xedea, iraupena, aldaketak, prestazioak emateko obligazioa dutenak eta adostutako obligazio ekonomikoak –baldin badaude–”. “



- b) Kontuhartzailearen aldeko txostena
- c) 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.1.s. artikuluan xedatutakoaren arabera, honako organo honi dagokio arlo honetako onespena ematea: Udalbatza. Bestalde, Tolosako Alkatetzak, 2023ko uztailearen 3ko 2023/1707 Dekretuaren bitartez, lankidetz hitzarmenak onartzeko ahalmena Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzea erabaki zuen. Horiek horrela, **Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra da hitzarmen hau onartzeko organo eskuduna.**

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tokiko Gobernu Batzarrari Tolosako udala eta Ikaztegietako udalaren arteko lankidetz hitzarmena onartzeko eta hura egikartzeko ebazpen proposamena egitea.

BIGARRENA.- Hitzarmena Tolosako Udalaren izenean Angel Martinez de Rituerto Arregi alkateak sinatu dezan ahalordetzea.

HIRUGARRENA.- Hitzarmenaren edukia honakoa izatea:

“BILDURIK

Batetik, Angel Martinez de Rituerto Arregi jauna, udal-idazkaria den Begoña Garmendia Vazquez andereak lagunduta.

Eta, bestetik, Alba Garmendia Castaño anderea Ikaztegietako alkatea.

PARTE HARTZEN DUTE

Angel Martínez de Rituerto Arregi jaunak, Tolosako Udalaren izenean eta ordezkartzen, alkate-lehendakari den aldetik, 2024ko abuztuaren 14ko 1867/2024 Alkatetza Dekretuan xedatutakoaren arabera egintza honetarako baimena duenak. Espedientean jasota dago erabaki horren ziurtagiria, Udaleko idazkariak emana.



Alba Garmendia Castaño andereak Ikaztegietako Udalaren ordezkari gisa, eta horretarako ahala du, 2023ko uztailaren 4ean Ikaztegietako idazkariak ziurtatuta. Espedientean jasota dago ziurtagiria.

Alderdiek elkarri aitortzen diote, bakoitzak esku hartzen duen moduan, hitzarmen hau sinatzeko behar den legezko gaitasuna dutela, eta, horretarako, honako hauek dira

AURREKARIAK

LEHENA.- Tolosako Udalak zein Ikaztegietako Udalak hondakin bilketaren zerbitzua Tolosaldeko Mankomunitatearen bitartez eskaintzen diete bere herritarrei. Nolanahi ere, zerbitzu horri dagozkion kontraprestazioak udal bakoitzak kudeatzen ditu.

BIGARRENA.- Arrazoi geografikoak direla eta, Tolosako udalerrien eremuan dauden hainbat ondasun higiezinak Ikaztegietako udalerrian kokaturiko azpiegiturak erabiltzen dituzte hondakinak biltzeko.

Beheko taulan zehazten dira Tolosako Udalerrian kokatuta dauden ondasun higiezinak dira azpiegitura horiek erabiltzen dituztenak.

TAULA

| Z. FINKOA | HELBIDEA | ZENBAKI A | BIS | SOLAIRU A |
|------------------|-----------------|----------------------|------------|----------------------|
| 5166451D | ALDABA AUZOA | 1 | W | |
| 3031437D | ALDABA AUZOA | 1 | | |
| 5166450S | ALDABA AUZOA | 1 | X | |
| 5024483K | ALDABA AUZOA | 3 | | 2 |
| 5024482C | ALDABA AUZOA | 3 | | 1 |
| 5024484S | ALDABA AUZOA | 3 | | 3 |
| 97634C | ALDABA AUZOA | 4 | | 0 |
| 97635K | ALDABA AUZOA | 6 | | 0 |
| 976578I | ALDABA AUZOA | 9 | A | |
| 97658N | ALDABA AUZOA | 9 | B | |
| 3031407A | ALDABA AUZOA | 12 | | 0 |
| 6140715S | ALDABA AUZOA | 13 | | 0 |



| | | | | |
|----------|--------------|----|---|---|
| 3031439T | ALDABA AUZOA | 14 | | 0 |
| 3056085E | ALDABA AUZOA | 15 | | |
| 5040641S | ALDABA AUZOA | 16 | | |
| 97623Q | ALDABA AUZOA | 17 | | 0 |
| 3031399R | ALDABA AUZOA | 18 | A | |
| 3031395Y | ALDABA AUZOA | 18 | B | 0 |
| 3031396Q | ALDABA AUZOA | 18 | C | 0 |
| 6151836W | ALDABA AUZOA | 18 | E | 0 |
| 5151835X | ALDABA AUZOA | 18 | D | 0 |
| 3031428K | ALDABA AUZOA | 19 | | |
| 5054479M | ALDABA AUZOA | 7 | | |

HIRUGARRENA.- Etxebizitza horiek Tolosako Udalean ordaintzen dute hondakinak biltzeko tasa.

LAUGARRENA.- Ikaztegi-tako Udalak ordaintzen du hondakinen bilketan eta zerbitzuan ondasun horiek sortzen duten gaitzargua.

ARAUDIA

LEHENENA.- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena: 25.2.b) eta 26.1.a) artikulua.

BIGARRENA.- Eusko Legebiltzarreko 2/2016 Legea, Tokiko Erakundeei buruzkoa: 17.1.17) artikulua, non udalei onartzen zaizkien hondakinen bilketaren arloko eskumenak eta 100 artikulua, lankidetzaren hitzarmenak arautzen dituena

HIRUGARRENA.- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.

LAUGARRENA. 11/1989 Foru Araua, Uztailaren 5ekoa, Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzekoa

BOSGARRENA.- Tolosako Udalak Ordenantza Fiskaletako 2.1.6 eranskinean arautzen du hondakinak biltzeko tasa.



ESTIPULAZIOAK

LEHENENGOA.- Hitzarmen honen xedea da arautzea Tolosako Udalak Ikaztegi-tako Udalarari ordaindu behar dion kopurua hitzarmen honen aurrekarietan aipatu diren ondasun higiezinak Ikaztegi-tako udalean kokaturiko azpiegiturak kokatzeagatik. .

BIGARRENA.- Ikaztegi-tako Udalak onartzen du hitzarmen honen aurrekari-tako taulan azaltzen diren ondasun higiezin horien titularrek erabiltzea Ikaztegi-tako udalerriko hondakin bilketako azpiegiturak.

HIRUGARRENA.- Tolosako Udalak Ikaztegi-tako Udalaren esku uzten du aipatutako azpiegitura horiek erabiltzea.

LAUGARRENA.- Ikaztegi-tako Udalak Tolosako Udalarari kobratuko dio zerbitzu hori emateagatik Tolosako Mankomunitateari ordaintzen dion gainkostua

Gainkostu hori kalkulatzeko, honako hauek hartuko dira kontuan: alde batetik, Ikaztegi-tan zabor-bilketa jasotzen duten etxeen kopurua, eta, bestetik, Tolosako Aldaba auzoko etxe kopuru horretatik azpiegitura horiek erabiltzen dituztenak., aurrekari-tako taulan agertzen direnak. Bi etxe kopuru horiek batu eta Tolosako Udaleko etxeei dagokien ehunekoa kalkulatu da.

Urteko lehen hiruhilekoan Ikaztegi-tako Udalak Tolosaldeko Mankomunitateari eskatuko dio urte horretan izango duen ekarpenaren kostu banaketa. Kostu banaketa horretan zehaztuko dira aurrekari-tako taulan agertzen diren ondasun horiei dagozkien kontzeptuak, aurreko paragrafoan aipatutako ehunekoa kontzeptu horiei aplikatzeko.

BOSGARRENA.- Zerbitzuaren kostu guztiak Ikaztegi-tako Udalak bere gain hartuko ditu eta Tolosako Udalak ordainduko dio aurrekari-tako taulan agertzen diren ondasun higiezinak Ikaztegi-tako Udalarari sortutako gastua.

SEIGARRENA.- Tolosako Udalak Ikaztegi-tako Udalarari egingo dizkion ordainketen epealdiak honako hauek izango dira:

Lehenengo ekarpena: 2024ko urtarriletik 2024ko azarora.

Bigarren ekarpena: 2024ko abendutik 2025eko azarora.

Hurrengo urteetako ekarpenen epealdia abendutik azarora bitartekoa izango da.

Ordainketak egiteko epea hilabetekoa izango da, Ikaztegi-tako Udalak faktura



aurkezten duen egunetik zenbatzen hasita.

*Ordainketak Ikaztegietaiko Udalaren kontu korrante honetan egingo dira:
ES21 2095 5020 0610 6118 5780*

ZAZPIGARRENA. *Zerbitzua ahalik eta ondoen kudeatzeko Tolosako Udalak emango dizkio Ikaztegietaiko Udalari datu hauek:*

- *ondasun higiezinaren jabeen izen-abizenak*
- *helbidea.*

ZORTZIGARRENA. *Alderdi sinatzaileek konpromisoa hartzen dute hitzarmen honen aplikazio-eremuan eskura ditzaketen edo laga daitezkeen datu pertsonalak tratatzeko garaian, honako hauetan ezarritakoa betetzeko: Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan, Europako Parlamentuaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen) eta hura garatzen duen araudian*

BEDERATZIGARRENA.- HITZARMENAREN JARRAIPENEN BATZORDEA

Alderdiek beren gain hartutako betebeharrak betetzen direla eta bertan jasotako jarduerak behar bezala gauzatzen direla zaintzeko, Jarraipen Batzorde bat sortuko da. Batzorde hori gutxienez 2 ordezkari osatuko dute: hitzarmen hau sinatzen duen alderdi bakoitzeko ordezkari batek edo horiek izendatzen dituzten pertsonak, hain zuzen ere.

HAMARGARRENA.- EZ-BETETZEEN ONDORIOAK

Hitzarmen hau suntsiarazteko arrazoiak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51.2 artikuluan ezarritakoak izango dira.

HAMAIKAGARRENA HITZARMENA ALDATZEKO ARAUDIA

Alderdiek noiznahi proposatu ahal izango dute hitzarmena berrikustea, bidezkotzat jotzen diren aldaketak egiteko. Horretarako, parte hartzen duten udalen ahobatezko adostasuna beharko da.

Klausulak berrikusten badira, aldaketak eranskin bidez txertatu beharko dira, eta bi udalek sinatu beharko dute.

HAMABIGARRENA..- HITZARMENA INDARREAN SARTZEA ETA HORREN



IRAUPENA

Hitzarmen hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean, eta 4 urteko iraupena izango du, beste lau urtez gehienez luzatu ahal izango da, aldeek idatziz adostu ondoren.

HAMAHIRUGARRENA.- HITZARMENAREN IZAERA ADMINISTRATIBOA

Hitzarmen honek izaera administratiboa du eta, bertan xedatutakoaz gain, zuzenean edo analogiaz aplika daitezkeen Administrazio Zuzenbideko arauak arautuko dute.

Hitzarmen honetatik sor daitezkeen auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren pean jarriko dira, izaera juridiko administratiboa dutelako.

HAMALAU GARRENA.- HITZARMENAREN BALIOZKOTASUNA

Hitzarmen hau alderdien adostasunarekin burutuko da.”

LAUGARRENA.- Tokiko Gobernu Batzarrak onartu ondoren, hitzarmenaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Gardentasun atarian eta Udaletxeko Iragarki Taulan argitaratzea, 19/2013 Legearen 8.1 artikulua b) atalean xedaturikoarekin bat.

4. ONARTZEA TOLOSAKO UDALAREN ETA IVAPEN ARTEKO HIZKUNTZA- PRESTAKUNTZA ETA NORMALIZAZIOAREN ARLOKO HITZARMENA.

IKUSIRIK

LEHENA.- IVAPek proposamen bat helarazi diola Tolosako Udalarari 2024ko irailaren 26an (sarrera-erregistroa: 2024-12327), honako helburu honekin: hitzarmen bat sinatzea, hizkuntza-normalizazioan eta hizkuntza-prestakuntzan elkarlanean jarduteko.

BIGARRENA.- Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburuak txosten teknikoa egin duela, eta honako hau adierazi duela:

1. «*Herritarrek eskubidea daukatela erakundeekin harremanak euskaraz edukitzeko, aintzat hartuta zer xedatzen duen 10/1982 Legeak, azaroaren 24koak, Euskararen erabilera normalizatzekoak, 5. artikuluan. Erakunde publikoei dagokie herritarren eskubide horiek bermatzea, 'eraginkorrak eta benetakoak izan daitezen'.*
2. *Erakundeek neurriak hartu behar dituztela langileek hizkuntza-gaitasun egokia izan dezaten eta beren jardunean euskara erabil dezaten. Hala xedatzen du*



11/2022 Legeak, abenduaren 1ekoak, Euskal Enplegu Publikoarenak, 187.2. artikuluan: 'Euskal administrazio publikoek saiatu behar dute beren zerbitzuko langileek hizkuntza-gaikuntza egokia izan dezaten eta euskara erabil dezaten euren jarduera-eremuan, eta, horretarako, beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte'. Helburu horrekin, hizkuntza-plangintzako tresnak onartu behar dituzte erakundeek, 11/2022 Legean jasotzen denez.

- 3. Tolosako Udalak indarrean duela dagokion plana: Tolosako Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa, 2023-2027. Hain justu ere, hizkuntza-prestakuntza da planaren helburu-ardatzetako bat, horren bitartez udal-langileek trebetasun handiagoa eduki dezaten beren lan-jarduna euskaraz gauzatzeko.*
- 4. Udalak eskumen propioa daukala erakunde barruan euskararen erabilera sustatzeko. Hala xedatzen du 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 7.1. artikuluan: 'Udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, izendatuta dauzkaten arloetako zerbitzu eta jardueretan euskararen erabilera sustatzeko eta euskararen normalizazioa planifikatzeko eskumena'. Eskumen hori gauzatze aldera, hitzarmenak egiteko modua dauka Udalak. Berriaz aukera hori jasotzen du 2/2016 Legearen 7.5. artikulua: 'Toki-erakundeek euskararen arloan aitortuak dituzten eskumenak baliatzeko, hitzarmenak izenpetu ahal izango dituzte'.*
- 5. IVAPek eta Tolosako Udalak indarrean izan dutela hitzarmena 2020az geroztik, hizkuntza-prestakuntza hori bideratzeko, eta hitzarmen horren indarraldia bukatu egin dela. Hortaz, zerbitzu horiek jaso ahal izateko, beste hitzarmen bat egin behar da.*
- 6. Proposatutako hitzarmenaren bidez, IVAPek Udalaren esku jarriko duela hizkuntza-prestakuntzako zerbitzua. Horretarako baldintzak 2005eko azaroaren 30eko aginduaren bidez finkatu zituen Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak (EHAA, 239. zk., 2005-12-19). Agindu horren 2.2. artikuluan ageri da erakundeek zer baldintza bete behar dituzten prestakuntza jasotzeko: batetik, hizkuntza-normalizazioko plana onartua izatea, eta, bestetik, IVAPekin hitzarmena sinatuta edukitzea. Hortaz, Tolosako Udalaren kasuan, IVAPekin akordioa sinatzea da falta den baldintza bakarra».*

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Txosten juridikoa eman gabe dagoela, eta, beraz, onarpen baldintzatua ematea proposatzen dela.

BIGARRENA.- 7/1985 Legearen 21.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, alkateak dauka hitzarmena sinatzeko eskumena. Hala ere, 2023ko uztailaren 3ko 2023/1707 Alkatetza Dekretuak Tokiko Gobernu Batzarrari ematen dio eskumena, betiere 9/2017



eta 38/2003 legeen aplikazio-eremutik kanpoko hitzarmenak baldin badira. Horrenbestez, Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra da hitzarmen hau onartzeko organo eskuduna.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosako Udalaren eta IVAPen arteko lankidetzeta-hitzarmena sinatzea, betiere txosten juridikoaren edukiaren menpe. Honako eduki hau du hitzarmenak:

Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-erakundearen artekoa, hizkuntza-prestakuntza eta normalizazioaren arloan izenpetzekoa (Tolosako Udalaren eta Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren artekoa).

Parte hartzen dute:

Alde batetik, Nagore Alberdi Berasaluze andreak, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko Koordinazio eta Kudeaketako idazkari eta ordezkari gisa, eta bestetik, Angel Martinez de Rituerto Arreguik, Tolosako Udaleko alkate eta ordezkari gisa.

Adierazten dute:

Elkarri nortasun juridikoa aitortzen dietela hitzarmen hau izenpetzeko, eta beronen helburua dela sinatzaile den herri-erakundeko enplegatu publikoek hizkuntza-prestakuntzako ikastaroetara joateko aukera izatea.

Oinarri juridikoak:

Lehenengoa. 10/1982 Legeak (Euskararen Erabilpena Arauzkotezko Oinarrizko Legeak) aitortzen du herritar orok eskubidea duela euskara nahiz gaztelania erabiltzeko herri-administrazioarekiko harremanetan, eta, ondorioz, administrazioari agintzen dio eskubide hori gauza dezan.

Bigarrena. Abenduaren 1eko 11/2022 Legeak (Euskal Enplegu Publikoarena), hizkuntza-normalizazioari buruzko tituluan, 10/1982 Legean ezarritako printzipio eta tresnak biltzen ditu. Legeak, halaber, hizkuntza-eskakizunak xedatzen ditu; horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetako lanpostuak betetzeko



prozesuetan eta, oro har, hautaketa-prozesuetan, irizpide objektiboak izango dira euskara-maila baloratzeko.

Hirugarrena. *Maiatzaren 4ko 133/2021 Dekretuak IVAPen egitura eta eginkizunak arautzen ditu; zehaztuz, 16. artikuluko 2.a. atalean, Hizkuntza Prestakuntzaren arloari dagokiola, besteak beste, «Foru-administrazioekin, toki-administrazioekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko beste ente batzuekin hizkuntza-normalizazioaren arloko lankidetzeta-hitzarmenak egitea».*

Laugarrena. *Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2005eko azaroaren 30eko Aginduaren bidez (aurrerantzean 2005eko azaroaren 30eko Agindua), Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeei eskainiko dien hizkuntza-prestakuntzako zerbitzua arautzen da (halaber, aginduaren bidez ezartzen dira euskara-ikastaroetara doazen udal-langileak ordezkatzeko dirulaguntzen arauak).*

Bosgarrena. *Otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuak (Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa) 86/1997 Dekretua (apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duena) indargabetzen du, eta, halaber, egokitzapen-aldia ezartzen du IVAPentzat -laugarren xedapen iragankorreko 7. puntuan-, adieraziz, «2025eko urtarrilaren 1era arteko epea izango duela dekretu honetan jasotako aurreikuspenetara egokitzeko». Hori horrela, eta egokitzapen hori eman artean, dekretuko 5. artikuluko 3. puntuan xedatutakoak ez du efekturik izango hitzarmen honetan.*

Klausulak:

Lehena. *Tolosako Udalak onartuta dauka hizkuntza-normalizaziorako plana; aplikagarri den araubideari jarraikiz, hizkuntza-normalizaziorako plana izatea bete beharreko baldintza baita, lankidetzeta-hitzarmena izenpetzearekin batera.*

Bigarrena. *Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak eta Tolosako Udalak erabaki dute lankidetzan aritzea azken erakunde horren hizkuntza-normalizazioko lanetan. Hitzarmen honen helburua da euskara-ikastaroak antolatzea; hain zuzen, euskalduntze/alfabetatzeko eta 4. hizkuntza-eskakizunari dagokion hizkuntza-prestakuntzako ikastaroak.*

- *Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak Tolosako Udalaren esku jartzen ditu 2005eko azaroaren 30eko Aginduaren I. kapituluan jasotako hizkuntza-prestakuntzako zerbitzuak.*



- 2005eko azaroaren 30eko Aginduaren seigarren artikulua 3. paragrafoan ezarritako parametroen arabera zehaztutako ordu-kreditua izango du langile bakoitzak.
- Alderdi biek ezagutzen dituzte 2005eko azaroaren 30eko Aginduaren III. kapituluaren datu pertsonalak babesteari buruz aipatzen diren xedapenak, eta hitz ematen dute bete egingo dituztela.
- Tolosako Udalak, hitzarmen hau izenpetzearen ondorioz, onartu egiten ditu 2005eko azaroaren 30eko Aginduko hizkuntza-prestakuntzako zerbitzuak jaso ahal izateko baldintzak.

Hirugarrena. Hitzarmen honen indarraldia lau urtekoa izango da, sinatzen denetik kontatzen hasita. Alderdiak berariaz erabaki ahal izango dute hitzarmena beste lau urtez luzatzea edo azkentzea.

Laugarrena. Hitzarmen hau bertan behera uzteko nahia adieraz lezake aldeetako edozeinek, bere aldetik, eta, hala eginez gero, bermatu egin beharko da hasitako jarduerak amaitu egingo direla. Nahi hori adierazi eta handik hiru hilabetetara amaituko da hitzarmenaren indarraldia.

Eta adostasun frogatzat, alde biek sinatzen dute hitzarmen hau, sinadura elektronikoren datan.

Nagore Alberdi Berasaluze

Angel Martinez de Rituerto Arregui

*Administrazio Publikoaren Euskal
Institutuko Koordinazio eta
Kudeaketako Idazkaria*

Tolosako Udaleko alkatea

*IVAPeko Zuzendaritza hutsik
dagoelako sinatzen du (maiatzaren 4ko
133/2021 Dekretuaren 6.3 art. eta 8.2f)*

BIGARRENA.- Hitzarmenaren testua argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Tolosako Udalaren Gardentasun Atarian eta udaletxeko iragarki-taulan, 19/2013 Legearen 8.1. artikulua b) atalean xedaturikoarekin bat.

HIRUGARRENA.- Erabakiaren berri ematea Euskara eta Hezkuntza Sailari, eta Giza Baliabideak Azpisailari.



TXOSTEN JURIDIKOA

| | |
|----------------------|---|
| UNITATE SUSTATZAILEA | EUSKARA ETA HEZKUNTZA SAILA |
| XEDEA | IVAP-EKIN HITZARMENA: HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOA |
| TITULARRA | IVAP |

IKUSIRIK

LEHENA.- 2024ko irailaren 26an, 12.327 sarrera-erregistro zenbakiarekin, IVAP-ek hitzarmen-proposamen bat helarazi diola Tolosako Udalari, hizkuntza-normalizazioan eta hizkuntza-prestakuntzan elkarlanean jarduteko hitzarmen bat sinatzeko helburuarekin.

BIGARRENA.- 2024ko urriaren 1ean, Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburuak dagokion txosten teknikoa egin duela ondorengo adieraziz:

“LEHENA.- IVAPekin hitzarmena egitea, Tolosako Udalak hizkuntza-prestakuntzako zerbitzuak jaso ahal izateko.

BIGARRENA.- Hitzarmenari buruz iritzia eskatzea Idazkaritzari eta Kontuhartzaitzari”.

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Prozedura honetan ondorengo **araudia** da aplikatu beharrekoa:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen (aurrerantzean 7/1985 Legea).
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzkoa (aurrerantzean 19/2013 Legea).
- 39/2015 Legea, urriaren 1koa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (aurrerantzean 39/2015 Legea).



- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena (aurrerantzean 40/2015 Legea).
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena (aurrerantzean 2/2016 Legea).
- 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena (aurrerantzean 11/2022 Legea).
- AGINDUA, 2005eko azaroaren 30ekoa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena. Agindu honen bidez, batetik, arautzen da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (HAEE) Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeei eskainiko dien hizkuntza-prestakuntzako zerbitzua, eta bestetik, ezartzen dira euskara-ikastaroetara doazen udal-langileak ordezkatzeko dirulaguntzen arauak (aurrerantzean 2005eko azaroaren 30eko Agindua).

BIGARRENA.- Lankidetzeta-hitzarmen honen funts izango da 2/2016 Legearen 17. artikuluan jasotako Udalaren eskumen hau:

“26) Euskararen erabilera sustatzeko udal-planak idatzi, onartu eta kudeatzea, lege honen 7. artikuluan xedatutakoa gorabehera”.

Lege bereko 7.1, 7.2. eta 7.5 artikuluei jarraiki, Udalak badauka eskumena euskararen ezagutza sustatzeko eta honen erabilera dinamizatzeko, besteak beste, hitzarmenak sinatzearen bitartez:

“1.– Udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, izendatuta dauzkaten arloetako zerbitzu eta jardueretan euskararen erabilera sustatzeko eta euskararen normalizazioa planifikatzeko eskumena. Eskumen hori egikaritu ahal izateko, udal bakoitzak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu eta euskararen erabilera normalizatzeko beharrezkoak diren planak onetsi eta garatuko ditu, kontuan izanik instituzio komunitatik eta indarrean dagoen legeriatik euskararen erabilerari dagokionez eratorritako planifikazio eta erregulazio-irizpideak.

*2.– Era berean, udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, hartatik eratoritzen diren ahalmen eta funtzioekin, beren lurralde-eremuan **euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko eskumena**, horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz, edo beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatzeko aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz.*

(...)

*5.– Toki-erakundeek euskararen arloan aitortuak dituzten eskumenak baliatzeko, **hitzarmenak izenpetu ahal** izango dituzte; mankomunitate, partzuergo, elkarte eta udalerriz gaindiko bestelako erakundeak sortu edo halakoetan esku hartu ahal izango dute, eta elkarlanerako beste modu batzuetara jo ahal izango dute, erakunde publiko*



eta pribatuekin”.

HIRUGARRENA.- Aurreko eskumena egikaritzearen ildotik, erakundeek neurriak hartu behar dituzte langileek hizkuntza—gaitasun egokia izan dezaten eta euren jardunean euskara erabil dezaten, 11/2022 Legearen 187.2 artikulua dioen bezala:

“2.– Euskal administrazio publikoek saiatu behar dute beren zerbitzuko langileek hizkuntza-gaikuntza egokia izan dezaten eta euskara erabil dezaten euren jardueraren eremuan, eta, horretarako, beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte”.

LAUGARRENA.- 7/1985 Legearen 21.1 artikulua dioenaren arabera, hitzarmen hau onartzeko eskumena Alkatearena izango da:

“s) Legeek berriaz aitortzen dizkioten gainerakoak, eta Estatuko legediak edota autonomia erkidegoetako udalerriri esleitutakoak izanik udaleko beste organo batzuei egotzi ez dizkietenak”.

Hala ere, 2023ko uztailaren 3ko 2023-1707 Alkatetza Dekretuak, lankidetzahitzarmenak sinatzeko eskumena Tokiko Gobernu Batzarrari ematen dio, betiere 9/2017 eta 38/2003 Legeen aplikazio-eremutik kanpo gelditzen bada:

“5. Lankidetzahitzarmenak:

*Beste administrazioekin edo pertsona fisiko eta juridikoekin **lankidetzahitzarmenak onartzea**, ondoko legeen aplikazio-eremutik kanpo geratzen direnak: 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzei buruzkoa, eta horiek garatzeko arauak”.*

Hartara, eta aurreko bi arauetan esandakoa kontuan izanik, **Tokiko Gobernu Batzarrari** dagokio hitzarmen hau onartzeko eskumena.

BOSGARRENA.- 7/1985 Legearen 55. artikulua, Estatu eta Autonomia Erkidegoetako administrazioen eta Toki Entitateetako administrazioen arteko koordinazioa eraginkorra izateko bete beharreko baldintzak ezartzen ditu:

*“Administrazioen arteko koordinazioa benetakoa eta administrazioa eraginkorra izateko, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako administrazioek alde batetik, eta toki-erakundeek bestetik, **elkarren arteko harremanetan, hau egin behar dute:***

a) Gainerako administrazioek beren eskumenak zuzenbidearen arabera erabiltzea eta horrek bakoitzari ekar liezazkiokeen ondorioak errespetatu.

b) Ongi neurtu, norberaren eskumenak baliatzerakoan, ukitutako interes publiko guztiak, eta, zehazki, gainerako administrazioei kudeatzeko gomendioan emandakoak.

c) Gainerako administrazioei beren kudeaketaren gainean, administrazioek beren eginkizunak egoki gara ditzaten, garrantzizkoa den informazioa eman.

d) Norberaren eremuan lankidetzahitzahitzarmenak eta laguntza aktiboak eman gainerako administrazioei, beren eginkizunak modu eraginkorrean betetzeko behar dituztenean”.



Lege berdinaren 57. artikulua Administrazioen arteko lankidetzara arautzen du, hitzarmenak honetarako aukera bezala izendatuz:

*“Toki-administrazioaren eta Estatuko eta autonomia erkidegoetako administrazioen arteko ekonomia, teknika eta administrazio arloetako **lankidetzara**, bai toki-zerbitzuetan bai guztien intereseko gaitan, borondatez burutuko da, legeetan oharmandako moduan eta erara; nolahi ere, izenpetu ditzaten administrazio-mailako partzuergo edo **hitzarmenen bidez ere burutu daiteke**”.*

Honen ildotik doa 39/2015 Legearen 86.1 artikulua xedatutakoa ere:

*“1. **Administrazio publikoak** akordioak, itunak, **hitzarmenak** eta kontratuak **egin ditzakete zuzenbide publikoko zein pribatuko pertsonekin**, baldin eta ordenamendu juridikoaren aurkakoak ez badira, transakziorik onartzen ez duten kontuen gainekoak ez badira, eta babestu behar duten interes publikoari erantzutea badute xede; betiere, kontuan izango dituzte prozedura arautzen duen xedapenean ezarritako irismena, ondorioak eta araubide juridiko espezifikoak. Egintza horiek administrazio-prozedura amaitzen dutela jo daiteke edo bestela prozeduran sartu, aurretiko moduan, prozedura amaitzen duen ebazpena baino lehen, lotesle gisa edo ez”.*

SEIGARRENA.- Hitzarmenei dagokienean zentratuz, 40/2015 Legearen Atariko Tituluaren VI. Kapituluan aurki dezakegu euren definizioa, 47.1 artikuluan hain zuzen:

*“1. **Hitzarmenak dira ondorio juridikodun akordio batzuk, administrazio publikoak**, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoak eta zuzenbide publikoko entitateek edo unibertsitate publikoak beren artean edo zuzenbide pribatuko subjektuekin sinatuak, xede komun bat lortze aldera”.*

Tolosako Udalaren eta IVAPen artean sinatutako hitzarmena, 40/2015 Legearen 47.2 artikuluan a) atalean xedatutako hitzarmen-mota izango da:

“2. Administrazio publikoak, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoak eta zuzenbide publikoko entitateek eta unibertsitate publikoak sinatzen dituzten hitzarmenak honako mota hauek izango dira:

*a) **Administrazio publiko biren edo gehiagoren artean sinatutako administrazio arteko hitzarmenak**, edo administrazio publiko diferenteei lotutako edo haien mendeko organismo publiko edo zuzenbide publikoko entitate biren edo gehiagoren artean sinatutakoak. Hitzarmen horien barnean bildu ahalko da beste administrazio publiko baten edo lotutako edo mendeko organismo publiko edo zuzenbide publikoko entitate baten bitarteko, zerbitzu eta baliabideak erabiltzea, eskumen propioak edo delegatuak baliatzeko.*

Salbuetsita geratzen dira autonomia-erkidego bik edo gehiagok zerbitzu propioak kudeatu eta emateko euren artean sinatzen dituzten administrazio arteko hitzarmenak,



autonomia bakoitzaren estatutuak xedatzen duena izango baitute arau hipotesi, betekizun eta baldintzei dagokienez”.

Lankidetzeta-hitzarmen honen xedea izango da IVAPen esku jartzea hizkuntza-prestakuntzako zerbitzua. Horretarako baldintzak 2005eko azaroaren 30eko Aginduan ezartzen dira, bertako 2. artikuluan zehazki:

“2.1.– Hizkuntza-normalizaziorako plana onartuta izatea, beti ere, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren arabera, alegia, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskaren erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen Dekretuaren arabera eta Osakidetzari dagokionez, ordea, martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuan (Osakidetzeta-Euskal Osasun Zerbitzuan euskararen erabilera normalizatzekoan) ezarritakoaren arabera.

2.2.– HAE Erekin lankidetzeta-hitzarmenaren eredu berria izenpetuta izatea. Hitzarmena egiteko eredu berria agindu honetako II. eranskinean dago jasota”.

Hortaz, bete beharreko bi baldintzetatik lehena beteta dauka Tolosako Udalak, indarrean baitauka *Tolosako Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa, 2023-2027*. Beraz, lankidetzeta-hitzarmena izenpetzea faltako litzateke kasu honetan.

ZAZPIGARRENA.- Tolosako Udalak hitzarmen hauek sinatzeko **eskumena** du 2/2016 Legearen 100. artikuluari jarraiki, kudeaketa publiko efizienteago bat lortzeko eta administrazio-bikoiztasunak ekidin edo ezabatzeko:

“1.– Toki-erakundeek lankidetzeta-hitzarmenak egin ahal izango dituzte bai beraien artean bai gainerako administrazioekin, kudeaketa publiko efizienteagoa lortzeko eta administrazio-bikoiztasunak ekidin edo ezabatzeko.

2.– Lankidetzeta-hitzarmenen helburua izango da: sektore edo biztanleria jakin bati bideratutako sustapen-politikak koordinatzea; aldeetako baten eskumeneko obra edo zerbitzuak burutzea; lege honetan zehaztutako eskumenak garatzeko –propioak, transferituak, eskuordetuak edo bestelakoak– behar diren egoitza, lokalak edo eraikinak partekatzea; ondarezko ondasunak erabiltzeko lagatzea eta lagapenak onartzea; prestazio-jarduerak garatzea; hala dagokionean, obra, ondasun eta zerbitzuen administrazio-kontratazioa arrazionalizatu eta zentralizatzeko mekanismoak jartzea; administrazio-zerbitzuak multzokatzea, eta, finean, aurrekoen antzeko beste edozein helburu lortzeko behar diren neurriak hartzea.

3.– Beharrezkoa denean, hitzarmenak aurreikusi ahal izango du, kasuan kasuko zerbitzuak eta bitarteko material eta ekonomikoak eskualdatzeaz gain, zerbitzu horietara atxikitako langileak ere aldatzea; baina horrek ez dakar berekin inor berez ez dagokion administrazio publiko bateko funtzio publikoan sartzea”.



ZORTZIGARRENA.- Hitzarmenak bete beharreko baldintzak 40/2015 Legearen 48. artikuluan aurreikusten dira. Kasu honetan, ondorengoak dira aipagarrienak:

“3. Hitzarmenak sinatuz kudeaketa publikoaren efizientzia hobetu beharko da, bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera erraztu, erabilgarritasun publikoko jarduerak egin daitezzen lagundu, eta aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako legeria bete.

8. Alderdiek adostasuna eman ez burutzen dira hitzarmenak”.

Lege bereko 49. artikuluan izendatzen da hitzarmenek izan beharreko gutxieneko edukia:

| LEGEZKOTASUNA BETETZEA | BAI/EZ | OHARRA |
|---|--------|---------------------|
| a) Hitzarmena sinatzen duten subjektuak, eta alderdietako bakoitzaren gaitasun juridikoa. | BAI | |
| b) Zer eskumenetan oinarritzen den administrazio publikoaren jarduera. | BAI | |
| c) Hitzarmenaren xedea eta subjektu bakoitzak hura betetzeko egin beharreko jarduerak. | BAI | |
| d) Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromiso ekonomikoak, halakorik badago. | BAI | |
| e) Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoen ez betetzeari aplikatu beharreko ondorioak. | EZ | |
| f) Jarraipen, zaintza eta kontrolerako mekanismoak. | EZ | |
| g) Hitzarmena aldatzeko araubidea. | EZ | |
| h) Hitzarmenaren indarraldia. | BAI | EZ DA ZUZENA |

Azterketa egin ondoren, **EZ DA HITZARMENAREN FUNTSEZKO EDUKI GUZTIA AGERTZEN HITZARMENEAN.** Ez da betebeharren ez-betetzeengatik ondoriorik jasotzen, ezta jarraipen batzorderik eta hitzarmena aldatzeko araubiderik ere.

Gainera, hitzarmenean azaltzen da honen iraupena 4 urtekoa izango dela *“sinatzen denetik kontatzen hasita. Alderdiek berariaz erabaki ahal izango dute hitzarmena beste*



lau urtez luzatzea edo azkentzea". Baieztapen hau ez dator legearekin bat, hitzarmenaren luzapena gehienez 4 urtekoa izango baita, ez 4 urtekoa derrigor.

BEDERATZIGARRENA.- 19/2013 Legearen 8.1 artikularen b) atalean jasotzen denari jarriki, hitzarmena argitaratu egin beharko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Gardentasun atarian eta Udaletxeko Iragarki Taulan:

*"1. Titulu honen aplikazio-eremuan aipatzen diren subjektuek ekonomian edo aurrekontuan eragina duten administrazio-kudeaketako egintza hauei buruzko informazioa **argitaratu beharko dute, gutxienez:***

*b) **Sinatutako hitzarmenen zerrenda**, honako hauek adierazita: sinatzaileak, xedea, iraupena, aldaketak, prestazioak emateko obligazioa dutenak eta adostutako obligazio ekonomikoak –baldin badaude–".*

Aurreko guztia aintzat harturik, hona hemen nire

PROPOSAMENA

LEHENA.- Tolosako Udalaren eta IVAPen arteko lankidetzahitzarmena sinatzeari dagokionean TXOSTEN BALDINTZATUA egitea, IVAPek aurkeztutako hitzarmen-ereduak ez baititu jasotzen 40/2015 legearen Atariko Tituluaren VI. Kapitulan hitzarmenen funtsezko eduki bezala aurreikusitako baldintza guztiak.

BIGARRENA.- Goian aipatutako baldintzak bete ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrari aipatutako lankidetzahitzarmena onartzeko eta hura egikaritzeko ebazpen proposamena egitea.

HIRUGARRENA.- Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako Hitzarmenaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Gardentasun atarian eta Udaletxeko Iragarki Taulan argitaratzea, 19/2013 Legearen 8.1 artikularen b) atalean xedaturikoarekin bat.

LAUGARRENA.- Erabaki hau Kontuhartzailtza eta Diruzaintza, eta Euskara eta Hezkuntza Sailei jakinaraztea.

Idazkaritzako teknikari juridikoa



5. DEKRETU HONEN BERRI EMATEA:

2024/2752 Dekretua: 2024/54 faktura zerrendak

2024KFAK0002

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Kontuhartzaitza eta Diruzaintza Saileko Zinegotzi Delegatuak, Estitxu Kortejarena Ugartek, bat etorrira Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1695 Alkatetza Dekretuak, 2023ko ekainaren 30ekoak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

KONTUAN HARTURIK

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2024ko honako faktura-zerrenda hau:

54. zenbaki duena, 194.147,02 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, Zinegotzi Delegatu honek

EBAZTEN DU

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

54. zenbaki duena, 194.147,02 eurokoa.



BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekurtsioa aurkezteko Alkateari hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.

Bestela, birjarpen errekurtsioaren orde, edo errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurtsio hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.

Agindu eta izenpetzen duena Ogasun eta Finantza Administrazio Saileko zinegotzi delegatuak, eta nik, Idazkari naizen honek, ziurtatua.

ZINEGOTZI DELEGATUA

IDAZKARIA

Estitxu Kortejarena Ugarte

Begoña Garmendia Vazquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaituzat jo dute 09:20ean.

ALKATEA

IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024IGBA0030-2024/12/17ko akta/2024/12/17ko akta ()